## 28.3. Eskaera-gutuna

| HEZURDURA | ADIBIDEA |
|---|---|
| **(1) HASIERAKO AGURRA**<br>*Alkate/zinegotzi/zuzendari ... hori:*<br>*X jauna: / X andrea:* | *(1) Zuloaga andrea:* |
| **(2) IGORLEAREN DATUAK**<br>Datu hauek adierazi behar dira: izen-deiturak, helbidea eta NA zenbakia. Ondoren azalduko denari sarrera egiteko, honako molde hauek erabil ditzakezu:<br>*(…) zuregana jotzen dut zera adierazteko:*<br>*(…) honako hau adierazten dizut:* | *(2) Nik, Alaitz Pascualek, Lazkaoko Iturribide kaleko 10.ean bizi eta XXXXXXXX NA duenak, zuregana jotzen dut zera adierazteko:* |
| **(3) AZALPENA**<br>Eskaeraren testuingurua aurkeztu: eskaera egiteko arrazoiak eman. | *(3) Gauza jakina da gure herrian ez dagoela euskal jakiak eskaintzen dituen janari-postu finkorik.* |
| **(4) ESKAERA**<br>Argi azaldu zer eskatzen den. Eskaera aurkezteko, honako formula hauek erabil ditzakezu (ezkerreko multzoko bat, eskuineko batekin batera):<br>*Horrela ba (…)*<br>*Aipatu arrazoiak direla medio, (…)*<br>*Hori guztia kontuan hartuta, (…)*<br>*Ondorioz, eta azaldutakoaren bidetik, (…)*<br>*(…) honakoa eskatzera natorkizu:*<br>*(…) honako eskaera hau egin nahi nuke:*<br>*(…) honakoa eskatzen dizut:*<br>*(…) honakoa da eskabide honen helburua:* | *(4) Horrela ba honakoa eskatzen dizut:* |
| **(5) AMAIERAKO AGURRA ETA IZENPEA**<br>Honako moldeetako bat erabil dezakezu gutuna ixteko:<br>*Nire eskaria aintzat hartuko duzulakoan, agur.*<br>*Zure erabakiaren berri laster izango dudalakoan, agur.*<br>*Aldez aurretik eskerrak emanez eta zure erantzunaren zain, agur.* | *(5) Zure ebazpenaren berri laster izango dudalakoan, agur.*<br>*Alaitz Pascual Eskutxuri* |
| **(6) DATA**<br>Honako aukeretako bat erabil dezakezu data adierazteko:<br>- Herriari *non* eta egunari *noiz* kasu-markak erantsi.<br>- *Nor/zer* kasu-marka erantsi herriari eta egunari. | *(6) Lazkaon, 2022ko ekainaren 17an* |